



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-04-23**

VIII. URTEA 1982. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Voith-Gorostidi auziak' hautsak harrotu ditu alderdi politikoaren artean

TOLOSA Euskadiko Epaitegi Nagusiaren epaia aztertu zuen Ezker Abertzaleak herenegun

ERREAKZIOA Bildarratzek eta Azkuek, Alkateak eta Hirigintza zinegotziak, Udalaren ikuspuntua azaldu dute 3



Imaz Bertsolaria eskolako ikasleak izan ziren, besteren artean, atzoko aurkezpenean. I. GARCIA

BADATOR ESKOLA TXIKIEN FESTA

ALTZO Imaz Bertsolaria eskolako irakasle, ikasle eta gurasoek herriko elkarte zein Udalarekin batera prestatu dute jaiak ekainaren 13rako 6

13 elkartek egoitza izango dute Emeterio Arresen

TOLOSA Tolosako Ekinbide Etxeak Topic zentroan du egoitza orain, eta beraz, hutsik geratu ziren lokalak egokituko dituzte 2

Kale antzerkiarekin hasiko dute bihar VIII. Antzerki Astea

ZIZURKIL Hilaren 30a arte sei lan eskainiko dituzte, tartean herriko hurrek antzeztutakoa 5

argazki lehiaketa

bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

1. Saria
Busturiako Iturrietan bi pertsonen bi gau pasatzeko aukera

2. Saria
Bermeoko Artilleria Etxean bi pertsonen bi gau pasatzeko aukera

3. Saria
Larte gaztagilean bi gauzako aukera

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

L Laburrak**Bihar izango da hilabete honetako Tolosa Kantari**

TOLOSA • Tolosa Kantari kantujira bihar izango da, ohi bezala, 12:00etan Tontokalen hasita. Biharko saioan Tarragona musikariaren laguntza izango dute parte-hartzaileek, bera eta bere lagunak arduratuko baitira kantuen letrari doinua jartzen.

Palestinaren emakumeen buruzko hitzaldia, gaur

TOLOSA • Palestinaren aldeko Gipuzkoako Plataformak eta Tolosa Litaarafu-Ezagutzeko Elkarteak antolatuta, *Palestinaren emakumeak okupazioaren aurrean* hitzaldia izango da gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Maria Jose Lera Psikologian doktorea, Hezkuntzaren Psikologian aditua eta Sevillako Unibertsitateko irakasleak emango du hitzaldia.

Kalabazin lamina xixaz betea, bihar Berdura plazan

TOLOSA • Hilabetero Tolosaldeko sukaldari bat joaten da Zerkausira edo Berdura plazara, Zerkausiko merkaturan, bertako eta garaiako produktua erosi ondoren, bertan prestatu eta heritarren artean banatzera. Biharkoan, Amasako Iturri-goraxo jatetxeko Jokin Zabala sukaldaria izango da. Kalabazin lamina xixaz betea prestatuko du Berdura plazan, eta 12:00ak aldeira, Berdura plaza bertan egingo du razioen banaketa.

'Tormesko Lazaro txikia' ipuina liburutegian

LEITZA • Liburuaren Egunaren barruan, Malas Pulgas taldeak *Tormesko Lazaro txikia* ipuin klasikoak kontatuko du, liburutegian, gaur 18:00etan hasita. 5 urtetik gorako gaztetxoek zuzendua dago emandaldia.

Afaria eta musika gaur, Irurako Zarretzen

IRURA • Irurako Zarretxe tabernan afaria eta ondoren kontzertua antolatuko dute gaurko. Afarirako 13 euro ordaindu beharko da. Musikiariak Paul, Borja blues eta Joselito izango dira.

Emeterio Arresen egoitza izango dute 13 elkartek

Tolosa • Topic zentroan du egoitza egun Tolosako Ekinbide Etxeak, eta horregatik hutsik geratu dira lokal horiek.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak Emeterio Arrese 2ko eraikinean dauden lokalak egokitu dituzte, herriko 13 elkarteren egoitza izateko. Elkarte horien izaera soziala da, beraz, «modu horretan, herriari eta gizarteari zuzenduriko erabilera emango zaio 400 m² inguruko gune horri». Eraikin horretan Tolosako Ekinbide Etxeak zituen bulegoak orain gutxira arte, baina iragan azaroen Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa ireki zutenetik bertara igaro dira. Beraz, lokal horiek hutsik geratu zirenez, hainbat elkarteren egoitza izatea erabaki du Udalak.

«Beharren arabera»

Hala, herriko 13 elkarterekin bilera izan dituzte, bakoitzaren beharrik zein diren aztertzeko, eta horien arabera erabakitzeko nola antolatu lokal berriak. Harizpe jubilatuen elkarteak orain arte bezala, lokalak zati bat izango du, eta Minbiziaren Aurkako Elkarteak

ere leku finko bat edukiko du. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak atzo eginiko aurkezpenan azaldu bezala, «elkarte horrek ez zuen egoitzarik Tolosan, beraz, hementik aurrera modu eraginkorragoan jardun ahal izango du minbiziaren dutenekin eta euren senitartekoekin».

Beste 11 elkarteek 6 bulego eta 3 bilera gela elkarbanatuko dituzte, eta bakoitzak egun jakinetan erabiliko ditu instalazioak azaldu dituen beharren arabera. Elkarte horietatik gainera, Tolosako beste edozein elkarte erabili ahalko ditu bilera gela, aurrez erreserba eginda.

13 elkarte horien artean 2.500 bazkide batzen dituzte, eta aurkezpenan nabarmendu bezala, «orain arte sakabanatuta bazuuden, aurrerantzean eraikin bakar batean egongo dira, eta euren eginkizunak aurrera eramateko lekua izango dute».

Maiatarako bukatuta

Lokalak egokitzeko obrak herenegun hasi ziren, eta maiatzaren bukaerarako amaitzea espero dute. 73.171 euroko aurrekontua dute lanek.

Hurrengo erronka egun Abastosen dauden elkarteek leku berria bilatzea izango da, laster Abastos eraikina berritzen hasiko baitira.

» DATUAK

- **Obrak.** Emeterio Arrese eraikinean 13 elkarterentzat lokalak egokitzea.
- **Epea.** Maiatzaren bukaerarako amaitzea espero dute.
- **Aurrekontua.** 73.171 euro.

Elkarteak

- Harizpe jubilatuen elkarteak.
- Laringektomizatuen elkarteak.
- AECC / Minbiziaren Aurkako Elkarteak.
- Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarteak.
- Aslemegi Gipuzkoako muineko lesionatuen elkarteak.
- Aspaldi diabetikoen elkarteak.
- Appetol, aurrejubilatua eta emakume alargunen elkarteak.
- Cuba y Palante lagun elkarteak.
- Bizi Bide, fibromialgia eta astenia kronikoa dutenen elkarteak.
- Bilgune Feminista.
- Beti Ikasten, Esperientzia Eskola emakume ikasle ohien elkarteak.
- Gainditzen gorren elkarteak.
- Nagusilan, adinekoekin lan egiteko boluntarioen elkarteak.

«Orain 13 elkarte hauekin egin dugun bezala, hasiak gara han egoitza duten elkarteekin hitz egiten, gure asmoa den artean irtenbiderik egokiena ematea baita».



Imanol Agirre, Joxe Agustin Arrieta, Jokin Bildarratz eta Jokin Azkue, atzoko aurkezpenan. ITERRADILLOS

K Kirol jarduerak**Gaur, hilak 23****Areto futbola**

- Usabalgo goiko kantzian, 20:45ean, bigarren mailako partida: Laskorain - 2king.

Bihar, hilak 24**Areto futbola**

- Usabalgo goiko kantzian, 16:00etan, lehenengo mailako partida: Tolargi - Anoeta.
- Usabalgo beheko kantzian, 17:30ean, hirugarren mailako partida: Laskorain - Zarautz.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantzian, 12:00etan, infantil mutilak: Ipar TAKE - Goierri. Infantil neskek: Ekhi Oriá - Easo 96.
- Usabalgo goiko kantzian, 12:00etan, kadete mutilak: Bide Bide - Easo Ekaitza. Kadete mutilak: Aurrera TAKE - Erroibide. Kadete neskek: TAKE - Easo 94 Espartak.
- Usabalgo goiko kantzian, 18:00etan, senior mailako partida: TAKE Orbela - Mondragon Univers.
- Usabalgo beheko kantzian, 16:00etan, junior mailako partida: TAKE - Kraft Atletico San Sebastian.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, Infantil F-8, 09:00etan: Anoeta - Zes-tou.
- Usabalgo futbol zelaian, 10:30ean, kadeteen lehenengo mailako partida: Tolosa CF - Trintxerpe.
- Usabalgo futbol zelaian, 12:00etan, infantil ohorezko mailako partida: Tolosa CF - Dunboa.
- Berazubiko futbol zelaian, lurraldeko ohorezko mailako partida, 16:30ean: Tolosa CF - Bergara.

Pilota

- Beotibar pilotalekuan, 10:00etan, Herri Arteko Pilota Txapelketaren partidak: Tolosa - Arrasate.

Etzi, hilak 25**Areto futbola**

- Usabalgo beheko kantzian, 10:00etan: Laskorain - Eskolapioak.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, emakumezko seniorren F-11 partida, 12:00etan: Tolosa CF - Real Union.
- Berazubiko futbol zelaian, 11:00etan: Tolosa CF - Lengokoak.

@ Argazki Lehiaketa. Aurten ere martxan da Aste Santuko oporraldia eta gero egin ohi dugun Argazki Lehiaketa. Hain zuzen ere, hamaikagarren edizioa du HITZA Argazki Lehiaketak. Irudietan atlean ikusgai daude lehiaketan orain arte parte hartu dutenak. Zuk ere zure argazkiarekin parte har dezakezu, hilaren 28a baino lehen bidalita. Sari ugari eskuratzeko aukera dago:

www.tolosaldeko-hitza.info

Nor: jsoan_feluna7E@yahoo.com Euskal Herriko produktua, ekolizearengandik zure eskura

Égia esan, ez daukat onitura handirik Internet bidez erosketan egiteko, baina BERRIA: eskaintzen dugun webgunean erosketako proba egin nuen, eta gustatu zaizkit bai produktuar eta bai zerbitzua.

27,00 €
Errf.: 100026
Euskal Herria.
Basatia
6 liburuak

25,00 €
Errf.: 100063
Handitzen,
handitzen
liburua

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko.plaza.com
plaza@euskalherriko.plaza.com

ETXERA
LANERA
EDONORA

erosi gurean

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hektor Espin: «Nola onartu dezakete plana, ilegalala dela baldin badakite?»

'Voith-Gorostidi auzia'

Tolosako Udaleri eta Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendu zaio Ezker Abertzalea.

ASIER IMAZ

Tolosako Ezker Abertzaleak hutsak harrotu dituen prentsurrekoa eskaini zuen herenegun udaltxean.

Alde batetik, Voith-Gorostidiko etxebizitzaren inguruan Euskadiko Epaitegi Nagusiak argitaratu berri duen epaia aztertu zuten. Bestetik, epaiaren inguruko irakurketa politikoa plazaratu zuten Ezker Abertzaleak.

2007ko akordio teknikoa

Voith-Gorostidi eremuari zegokion arau aldaketa, Tolosako Udalak aurkeztua, 2007an onartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak. Tolosako Ezker Abertzaleak epaitegira eraman zuten akordio hau. Duela hiru aste, Euskadiko Epaitegi Nagusiak, 2007ko arau aldaketa haiek bertan behera utzi zituen.

Epaia honela aztertu zuen herenegun Aitor Iztuetak: «Gure helegitean 10 puntu agertzen ziren:



Tolosako Ezker Abertzaleko hainbat kidek prentsurrekoa eskaini zuten herenegun. ASIER IMAZ

eraikigarritasuna, zarataren legearen urraketak, azterketa ekonomiko eskasa, gune libre gutxi... Orain atera berri den epaia, lehen puntua bakarrik aztertzen du. Bertan, eraikigarritasuna lege onartutakoa baino askoz handiagoa zela esaten du. Argi esateko, 700 etxebizitza aurreikusten baldin baziren, horietatik 250 soberan daudela dio epaia. Dentsitate hau aldatu beharra dagoenez, honen ondorio diren beste puntuetan ez da sartzen epaia».

Irakurketa politikoa

2007ko akordioaren inguruko irakurketa politikoa, Hektor Espinek egin zuen Ezker Abertzalearen izenean; «hasieratik esan genuen bezala, Voith-Gorostidiko plana Tolosan inoiz eman den hirigintza arloko eskandalurik handiena da, eta Euskadiko Epaitegi Nagusiaren epaia gure iritzia baieztatzen eta indartzera dator».

Espinek «prebarikazioa» ere aipatu zuen: «Jokin Bildarratzek eta gainontzeko arduradun politikoez

ezin dute inolaz ere esan ez zekitenik edota jakinaren gainean ez zeudenik. Izan ere, 2006ko uztaietan, Aldundiko teknikariek espreski ohartarazi baitzuten onartzekotan ziren plana legearen aurkakoa zela eta hala ere, Udalak zain Aldundiak aurrera jarraitu zuten lotsagabeki».

«Erakundeetako arduradun politikoen kasuan, jakinaren gainean erabaki ilegalak hartzea prebarikazioa da eta horixe da, gure ustez, kasu honetan gertatu dena. Beraz,

eskandalu honen arduraduneri erantzukizun penalak eskatzeko aukera aztertzen ari gara».

Arduradun politikoei galderak luzatu zizkien Espinek eta hauen erantzun posibleak ere azaldu zituen Ezker Abertzaleko kideak: «Bestetik, tolosar askok pribatuen egiten duten galdera bera egin nahi dugu gaur publikoki. Nola onartu dezakete Udaltxeak eta Aldundiak Voith-Gorostidiko plana, ilegalala dela jakinik? Zergatik onartzen dute lur jabe eta eraikuntza enpresa espekulatzaileri neurri gabeko irabaziak ekarriko dizkien plana, ilegalala dela jakinik? Zeren truke ematen zaie eraikuntza enpresa handiei legeak baitemendu baino 250 etxebizitza gehiago egiteko aukera?».

«Gure ustez, galdera hauek erantzun sinesgarri bakarria dute. Kasu hau Estatu mailan edota berriki Araban EAJ alderdiaren baitan eman diren ustelkeria kasu larrienen pare agertzen da, bete betean. Gure ustez, kasu honen larritasuna bikoitza da, Tolosako Alkate izateaz gain, Jokin Bildarratz EUDELeko lehendakari ere baita, eta izan duen jokabideak politikarako inolako zilegitasunik gabe uzten baitu. Horregatik, dagoen erantzukizun politikoa bere gain hartu eta kasuaren larritasunaren taminako erabakiak eskatu nahi dizkio gaur Ezker Abertzaleak Jokin Bildarratz».

Azkenik, beste alderdi politikoekin biltzeko asmoa agertu zuen Ezker Abertzaleko kideak.

Jokin Bildarratz: «Tolosak lau urte eder galdu zituen Ezker Abertzalearekin»

A. IMAZ

Tolosako alkateak eta Hirigintza zinegotziak, Jokin Bildarratzek eta Jokin Azkuek, atzo hitz egin zuten Voith-Gorostidi auziaren inguruan. Arlo teknikoan eta politikoan euren ikuspuntua oso argi utzi zuten.

Arlo teknikoa

Jokin Bildarratzek prozesua azaldu zuen: «2005ean hitzarmena aurkezten genuen udaltxean: lantegi, jabe eta etxebizitza-susta-

tzaileekin. Lege zaharra indarrean zegoenean, Udalak arau aldaketen tramitazioa amaitu zuen, 2006ko maiatzean. Ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiaren onartu zituen. 2006ko irailean Lurzoruaren Lege berria sartu zen. «Udalak ordurako tramitazio guztiak amaituak zituen, baina batzuk helegitea jartzea erabaki zuten».

Arazoak izan zitezkeela «aurreikusiz», Euskadiko Auzitegi Gorenaren epaia horren lekuko, Udala «Plan Orokorri begira» la-

nean hasi zen, 2006ko lege berria kontuan hartuta. 2009an Plan Orokorra onartu zuten eta honekin aurreko arau aldaketak, epaian agertzen direnak, «bertan behera gelditu ziren». Lege berrira «egokitzenez» 2009ko hiri antolaketa, «gai hori bukatuta dago».

Lege berria

Lurzoruen lege zahararen arabe- ra, etxebizitza kopurua jakiteko, sistema libreko edo herritar guz- tien gozameneko eremuak kon-

tuan eduki behar ziren. Lege berriarekin, «sistema horiek kenduta gelditzen zaizun lurzorua bider 2,3 egin behar duzu. Ariketa horrek ematen du eraikigarritasuna». Lege berriarekin, etxebizitza kopuru bera kontuan hartuta, «Voith-Gorostidi eremuan, 2,01 ateratzen da».

Irakurketa politikoa

Bildarratzek oso gogor hitz egin zuen Ezker Abertzalearen aurka arlo honetan, 60-600 azpimarra-

tuz: «Ezker Abertzalea Udalean egon zenean, 99/03 urteetan, 60 etxebizitza babestu egin ziren Tolosan. 04/09 urteetan 600 etxebizitza egin dira. Hori da diferentzia, ez dago besterik. Politikaren partetik maltzurrena egiten ari dira. Hori ez da politika, hori beste historia bat da. Ez zaie ez Tolosaren etorkizuna, ez gazteak, ez etxebizitza sozialak, ez lana inporta. Saltsa bakarrik nahi dute. Tolosa eta tolosarrok ez gara beraien kezka, beraiek duten gaitasun eza estaltzea baizik». «Estatu osoan ez dago horrelako operazio eredu garriarik. Etxebizitza babestuen %63a izango dira, legeak %40 eskatzen dituzenean. Hor dago gure apustua, eta garrantzitsua osoz gainera».

Ploza Etxeberri JATETXEA
Zerbitzaria behar dugu
616 647 869

Guk, La Salle Berrozpe, eta Zuk?

Ate Irekiak - Hiziketa Zikloak. La Salle Berrozpe
Apirilak 29, 16:30 - 19:30

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK
KOORDINATZAILERAKO POSTURAKO LANGILE BAT BEHAR DU.

Kontuan izango da:

- Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.
- Euskalgintzaren ezagutza izatea.
- Kurrikuluma galtzaundi@galtzaundi.com helbidera bidali behar da.

Epea, maiatzak 14

E Elkarrizketa

JON ETA MYRIAM > Gora Japon musika taldeko kideak

«Zuzeneko talde moduan sortu ginen eta horrela jarraituko dugu»

Tolosa » Kontzertua eskainiko dute gaur 22:30etik aurrera Bonberenean Atom Rhumba taldearekin batera.

ONINTZA LETE (UROLA KOSTAKO HITZA)

Jon eta Myriam. Myriam eta Jon. Hala aurkezten dute beren burua Gora Japon musika taldeko kideek. Dimakoa da Myriam, zumaia-rra, berriz, Jon. Ez dute beste etiketarik edo eranskirik. Disko bakarra dute kalean, 2008ko martxoan Tolosako Bonberenean grabatutakoa eta Bidehuts zigilua-reen kaleratutakoa. Gaur hainjustu Bonberenean eskainiko dute kontzertua Atom Rhumba taldearekin batera 22:30etik aurrera. Bihar ere izango dira kontzertuak Bonberenean 22:30etik aurrera; hard-rocka egiten duten Zarauzko Mantisa eta *Emitiendo* diska aurkeztuko duten Radio Plebe iruindarrak.

Diskoa zigilu independente batekin atera duzue, ezta?

Myriam: Bai, Bidehutsekin. Irungo zigilu independente bat da. Lisabö, Anari, Inoren eroni eta Hotel musika taldeen elkarlanetik sortu zen eta Gor disketeak banaketaren zati bat egiten dio.

Ingeleseko abestiak dira nagusi diskoan...

Myriam: Bai, disko honetan gehienak ingelesez egin ditugu. Beste

abesti bat, berriz, portugesez egin dugu.

Diskoan, bereziki kutuna den abestirik ba al duzue?

Jon: Grabaturiko denak gustatzen zaizkigu. Abesti batzuk diskotik kanpo utzi genituen; zenbait zaharregiak iruditu zitzaizkigun eta beste zenbait, berriz, diskoko beste abestiek ez zetozen ondo.

Tolosan grabatu duzue, ezta?

Myriam: Bai, Bonberenean dago-

en estudioan grabatu genuen hiru egunetan. Zortzi abesti ditu diskoak, eta guztiak zuzeneko saioetan grabatu genituen. Ahotsak aparte sartu genizkion eta horretan Karlos Osinagak lagundu zigun. Bera Lisabö musika taldeko eta Bidehuts zigiluko kidea da.

Emaitzarekin gustura al zaudete?

Jon: Bai, diskoa nahikoa azkar egin genuen eta grabaketan ere ondo aritu ginen. Ez da estudioan hila-bete luzeetan landutako disko bat, zerbait espontaneoagoa baizik.

Nolako esperientzia izan da lehen diskoa kaleratzea?

Jon: Diskoa geure kasara argitaratzeko asmoa genuen. Azkenean,

diskete baten laguntza izan dugu eta hedabideek ere kasu pixkat egin digute, eta horrek ilusioa ematen du, bai. Guran jarritako atentzio horrek erakusten digu ez gara ari hormarentzat jotzen, hormaren partez interes pixkat duen norbait badagoela aurrean.

Zein da Gora Japon taldearen estiloa, nola definituko zenukete egiten duzuen?

Jon: Oinarrian rock, funky eta rap estiloak daude. Hala ere, entzule bakoitzak beste zenbait eragin aurki ditzake gure musikan; pertsonala da hori.

Bi bakarrik izan arren, instrumentu asko erabiltzen dituzue talde-

an. Nola lortzen duzue konpon-tzea?

Myriam: Biok abesten dugu. Gero, Jonek gitarra, tronpeta eta teklatura jotzen ditu. Nik, berriz, bateria eta teklaturtxo bat. Hau batzuetan erabiltzen dugu, perkusio moduan. Instrumentu berriak erabiltzea gustuko dugu; zerbait berria ekartzen duten instrumentuak asko interesatzen zaizkigu. Zerbait berria probatzeko gogoia dugunean, probatu egiten dugu.

Zein motatako agertokiak ematen dituzue kontzertuak?

Jon: Hainbat lekutan jotzen dugu, ez dugu toki berezirik: gaztetxeetan, tabernetan, Bilboko jaietan, Gasteizko Montehermoso jauregian, kafe antzokietan... Edozein inguru eta lokal motatan aritzen gara.

Lehen kontzertua izena aukeratu aurretik eman zenuen.

Jon: Hala da, bai. 2005 urte amaieran sortu genuen taldea. Entseatzaren hasi berriak ginen eta kontzertu bat emateko eskatu ziguten. Izenik ere ez genuen artean, baina gitarra-jotzaile kanadiar baten *te-lonero* moduan jo genuen. Hala hasi zen gure ibilbidea. Orduetik, urte hauetan zuzeneko emanaldietan aritu gara. Zuzeneko talde moduan sortu ginen eta horretan jarraituko dugu. Gipuzkoa aldean ibili izan gara gehienbat, baina leku berriak ezagutzeko gogoz gaude. Leku eta zuzeneko desberdinak eginez ikasten dute zuzeneko taldeek, han hazten dira.

Izenik gabe hasi, eta izen bereziarekin amaitu; nondik atera zenuen ideia?

Myriam: Izenak ez dauka arrazoi zehatzik. Elkarren artean zerikusirik ez duten bi hitz dira *gora* eta *japon*. Joni otu zitzaion, eta hartu egin genuen.

Bi bakarrik izateak alde onak eta txarrak izango ditu. Zeintzuk?

Jon: Bai, alde on asko ditu eta txar batzuk ere bai, baina gu alde on horiek aprobetxatzen saiatzen gara: lana azkarrago egiten da, erabakiak erazago hartzen dira eta musikalki ere erronka handia da, bide berriak bilatzera bultzatzen gaitu eta oso gustura gaude formatu honekin. Kolaboratzaileekin lan egiteko ere oso zerbaki egokia dela uste dugu.

Myriam: Gainera, ni Dimakoa eta Jon Zumaiaiko izan arren, Bilbon bizi gara biok eta horrek ere asko errazten ditu gauzak, entseatzeko adibidez.

Jon: Bilboko musika taldea garaile esan daiteke.

Hemendik aurrera zer asmo duzue?

Jon: Orain diskoa zuzenean aurkezten ari gara, baina kantu berriak sortu ahala kontzertuetan aurkezten ditugu, hor probatzen baita funtzionatzen duten ala ez. Bestalde, Atom Rhumba taldeko abeslariarekin proiektu bat ere badugu. Zineko soinu banden bertsiok prestatu ditugu.



GORA JAPON

Egunkariaren Eskertza ekitaldia

Gonbidapenak eskuratu ahal izateko
deitu 607770740 zenbakira

Apirilak 25 goizeko 11:30ean

Bilboko Euskalduna jauregian



UBEDA ANAIAK • GOSE • KATAMALO • AITOR GOROSABEL
MIREN AMURIZA eta MADDALEN ARZALLUS
DANTZA • HITZA • MUSIKA...

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 4an.

TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

ORDUA: arratsaldeko 16:00etan.

BIZKAIA

EGUNA: maiatzaren 4an.

TOKIA: EHUren Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko atarioran, 1.1 gelan.

ORDUA: eguerdiko 12:00etan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 4an.

TOKIA: BERRIAREN Gasteizko egoitzan: Bizenta Mogel 6, behea.

ORDUA: goizeko 09:30ean.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 4an.

TOKIA: BERRIAREN Iruñeko egoitzan: Iratxeko monasterioa, 45, eskuineko eskalera, 13. ezkerre.

ORDUA: goizeko 10:00etan.

Probara curriculumak ekarri behar da

«Adin eta gustu guztieko» jendea erakartzeko Antzerki Astea antolatu dute

Zizurkil » Bihar hasi eta hilaren 30ean amaituko da; 6 antzezlan ikusi ahal izango dira VIII. edizio honetan.

REBEKA CALVO

«Adin eta gustu guztietako» jendea erakartzeko asmoz prestatu dute Zizurkilgo VIII. Antzerki Astea. Gaur bertan hasiko da eta hilaren 30a arte luzatuko da. Lan guztiak euskaraz izango dira.

Zizurkilgo Maria Angeles Lazkano alkateak azaldu zuenez, «argi dago antzerkiarekiko zaletasun handia egon dela beti herrian» eta horren adibide da, hain justu, Antzerki Asteak zortzigarren urtea betetzen duela aurten. Era berean, Villabonako Udalarai ere eskerrak eman nahi izan zizkion, elkarlanean aritu direlako.

Deialdi zabala

Ainhoa Larrea Kultura eta Euskara teknikariak, bere aldetik, helburua «adin eta mota guztietako jendearengana iristea» dela nabarmendu zuen.

Zortzigarren urtea izanda aurreko edizioetako balorazioa egiteko eskatzerakoan, Larreak «balorazio ona» egiten dutela argitu zuen. «Ume eta gazte asko etorzen dira antzezlanak ikustera. Haur asko, gainera, aktore bezala ere aritzen dira», esan zuen.

Helduen inguruan, «bestelako balorazioa» egin behar dutela ere argitu zuen. «Kale antzerkia beti umore askoko lana izaten da, eta



Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea atzoko aurkezpenaren. R. CALVO

» ANTZERKI ASTEKO EGITARAUA

■ **Bihar, apirilak 24.** Kale antzerkiaren txanda izango da; Trapu Zaharrak konpainiak *Camping Renove* antzezlan eskainiko du 22:00etan Pedro Mari Otaño plazan.

■ **Hilak 26, astelehena.** Eskolako haurrentzako emanaldia izango da; Txalo Produzioak-ek *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* antzezlan eskainiko du 6 eta 12 urte bitarteko Zizurkilgo haurrei Atxulondo kultur etxean 15:15ean.

■ **Hilak 27, asteartea.** Egun hone-

tako emanaldia Villabonako Udalarekin batera antolatu dute. Berezik gaztekoentzat egingiko obra ikusi ahal izango da, alde pedagogikoa ere lantzen duenak. Lana *Sarebidean* du izena eta Pikor Teatrorena da. Emanaldia 11:00etan izango da Villabonako Gurea zinemaren eta DBH 2, 3 eta 4ko gazteak joando dira ikustera.

■ **Hilak 28, asteartea.** Haurrentzako emanaldia; Txatxilipurdik *Mundua koloretan* obra eskainiko die 3 eta 6 urte bitarteko Zizurkilgo hau-

oso erantzun ona izaten du beti, baina umoretik kanpo dauden beste helduentzako lanak ikustera jende gutxiago joaten da», gaineratu zuen.

Film laburren zirkuitua, gaur Zizurkilgo alkateak eta teknikariak, era berean, gaur bertan herrian Euskal Herri osoko ekimena den Film Laburren Zirkuitua izango dutela gogoratu zuten. 20:30ean izango da hitzordua Atxulondo kultur etxean.

Film Laburren Zirkuituaren baitan Koldo Almandozen *Ahate pasa*, Telmo Esnalaren *Amona Putz!*, Jose Luis Barredo eta Iñigo Garciairen *Clark eta Boris*, Arkaitz Basterraren *Esaiok*, Josu Bergara eta Iñigo Sanzen *Nora Zoaz*, Urko Manduit eta Ioseba Salaberriren *Odisea etxaldeen*, HUEZILko 6 ikasleren *Zorion Hutsa* eta Topaguneak antolatutako Kameratoia-ko *Nireak dira!* eta *Neguko hitzak* lanak ikusi ahal izango dira.

rei Atxulondo kultur etxean bisioetan, 10:00etan eta 11:30ean, hain zuzen.

■ **Hilak 29, asteazkena.** Pedro Mari Otaño ikastetxeko haurrek antzezturiko lanak; 11:00etatik aurrera Atxulondo kultur etxean LH Teko ikasleek *Hiru txerrikumeak* eta LH 6ko ikasleek *Amona Benidormer* lanak antzeztuko dituzte.

■ **Hilak 30, ostirala.** Azpeitiako Lakrikun Antzerki Elkarteak *Prest gaudel!* antzeztuko du 20:30ean Atxulondo kultur etxean.

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, bihar

ERREDAKZIOA

Villabonako Oinkari dantza taldeak Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa antolatu du biharko. 18:00etan hasiko da Gurea zinemaren. Bertan Euskal Herriko 42 dantzari gaztetok parte hartuko dute eta sarrera doan izango da.

Txapelketa Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen duen Ligaren kanporaketa bat izango da eta Oinkariko 14 dantzari hartuko dute parte.

Finala ospatu aurretiko azken kanporaketa dela kontutan harturik, ez da emozio faltarik izango Gurea zinemaren.

46 urteko espetxe zigorra ezarri diote Zurutuzari

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalak 46 urteko eta 8 hilabeteko espetxe zigorra ezarri dio Jose Antonio Zurutuzari tolosarrari 1982. urtean Telefonikako Donostiako ordezkariz zen Enrique Cuesta ete bere bizkartzaina, Antonio Gomez polizia, erailtzegatik.

Fiskaltzak 60 urtetako espetxe zigorra eskatu zuen pasa den otsailan eta defentsak delitua preskribatu egin zuela esan zuen.



Aitorpen Modalitateak:

Gogoratu errenta euskaraz egin dezakezula konfiantza osoz.

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:

Autolikidazio proposamena jaso baduzu etxean, telefono edo Internet bidez onartu ahal izango duzu, apirilaren 14tik maiatzaren 7ra bitartean.

MEKANIZATUA:

Gure teknikarietako batek lagunduko dizu zure aitorpena aurkezten honako 11 bulego hauetakoren batean: Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Hernani, Irun, Tolosa, Erreterria eta Donostia (Antso Jakituna, Sekundino Esnaola eta Errotaburu). Egiaztagirak eta kontu-zenbakia besterik ez dituzu ekarri beharko. Enpresaburu eta profesionalak beren jardueraren eranskinak ere aurkeztu beharko dituzte.

Emaitza itzultzekoa bada, hiru laneguneko epean sartuko dizugu zenbatekoa zure kontuan. Gogoan izan hitzordua eskatu behar duzula apirilaren 19a eta ekainaren 11 bitartean, telefonoz nahiz Internet bidez.

INTERNET BIDEZ:

- Zuzenean edo aholkulari edo finantza-erakundearen laguntzarekin.
- Zerga informazioa: Zure zerga informazio partikular guztia (diru-sarrerak, gastuak, atxikipean eta abar) gure web-orrian dago eskura, zuri aitorpena errazteko. Datu horiek laguntza programara inportatu ditzakezu, eskuz sartzen aritu beharrik izan gabe. Informazio hori eskuratzeko, pasahitz operatiboa eskatu behar duzu gure web-orrian.

APirilAREN 20TIK
EKAINAREN 25ERA

gipuzkoako
ogasuna

GIPUZKOAKO
zurekin, aurrera. DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

www.gipuzkoa.net/ogasuna

902 100 040 ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

Autolikidazio proposamenak onartzea, errenta mekanizaturako hitzordua eta informazioa.

Gipuzkoako Eskola Txikien Festa ekainaren 13an ospatuko dute

Altzo » Festa antolatzea «esfortzu handia» dela azaldu du Mikel Olan Santilazpi guraso elkarteko lehendakariak.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Gipuzkoako Eskola Txikien Festa Altzon egingo da, ekainaren 13an. Ekitaldiaren leloa *Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik* izango da. Mikel Olan Altzoko Santilazpi guraso elkarteko lehendakariak aurkezpenaz azaldu zuenez, «eskolak eta bere inguruko jarduerak gure herria bizi bizirik mantentzen dute, herriari amasa ematen diote». Olanok gaineratu zuenez, «hain globalizatu dagoen mundu honetan gure umeak oraindik ere nekazari kutsua duen eta naturarekin harreman zuzena duen herri batean hezi eta notasuna finkatzeko aukera dute».

Altzoko Imaz Bertsolaria eskolan 59 ikasle eta 10 irakasle daude egun. Festa antolatzea «esfortzu handia» suposatzen duela azaldu du Olanok eta lan horretan «herri guztiamurgilduta dago: Udala, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta herriko elkarte ezberdinak». Irailen hasi ziren prestaketa lanak egiten.

«Egun eder bat igarotzea»

Festa aurkezteko agerraldian, Olanok zuzendaria, Ana Eizagirre EHIGeko lehendakaria, Izaskun Karrera Gipuzkoako Eskola Txikietako gurasoen koordinatzailea eta Isabel Lakuntza Gipuzkoako Eskola Txikietako irakasleen koordinatzailea izan ziren. Bertan egon ziren ere Altzoko eskolako LH5 eta LH6ko ikasleak.

Eskola Txikien Festa 1988tik os-



Imaz Bertsolaria eskolako ikasleak festaren leloarekin eta Altzoko Handiaren irudiarekin. I. GARCIA

patzen da eta aurtengoa 23.a izango da. Orain arte egindako 22 festetatik erdiak eskualdean egin dira. Egun eskola txikien koordinatzaileak 26 eskola daude Gipuzkoan eta guztira 1.200 ikasle dira. «Festaren helburua eskola txikietako haur, guraso eta irakasleak elkarrekin egun eder bat igarotzea da», azaldu du Karrerak. Olanok gaineratu duenez, «txikiak izanik denon batura horrek egiten gaitu handi». Hori azpimarratu nahian eraman zuten Altzoko Handiaren irudia prentsaurrekora.

Eskola txikietako kideez gain, gonbitea zabaldu zieten bertara joan nahi dutenei. «Ea ekainaren 13an denak gure herrian elkartu eta festa polit batez gozatzeko aukera dugun. Denak gonbidatuta zaudete», azaldu zuen Olanok. Eguraldiak laguntzen badu, Altzora 3.000 lagun inguru joatea espero dute.

Larraulen eskola izatea babestu dute

I. GARCIA

Ana Eizagirre EHIGeko lehendakaria zenbait eskola txikien egoera ere izan zuen hizpide atzoko prentsaurrekoan. «Ikasturte oso honetan ari gara negoziatzen administrazioarekin eskola txikien estatua eta zein irizpide dituzten eskola txikiak mantentzeko», azaldu zuen.

Zehazki datorren ikasturtean Hezkuntza Sailak ez du aurreikusiten Larraul, Itziar eta Zubietan eskolak ematea. Gai horretan oraindik ez dagoela akordioak azaldu du Eizagirrek eta hasierako postura mantentzen dutela: «Benetan pentsatzen dugu guraso eta ikaste-

txeen aldetik eskatzen dena dela benetan gizarteak behar duena eta gurasoen nahia betetzen duena, hau da, hiru herri horietan eskola izatea».

Eizagirrek gaineratu duenez, aldarrikapenekin jarraituko dute. «Esan behar da auzo eta herri horietako bai gurasoak, irakasleak eta udalak ados daudela proiektu horrekin jarraitzeko. Eskola txikien inguruan indarra jartzea eskatzen diogu Hezkuntza Sailari eta gurasoen nahia betetzea», dio. Aldarrikapenek bai maiatzean zehar, bai Eskola Txikien Festan, bai eskola publikoaren jaian lekua izan- gudo dutela azaldu zuen.

Laburrak

Herriarteko Txapelketaren itzulerako partidak

PILOTA » Herriarteko Txapelketaren itzulerako partidak jokatuko dituzte asteburu honetan eskualdeko herriek. Gaur, Bidegoianek Oiartzunen aurka jokatu du, etxean, 20:00etan, eta Alegiak Usurbilen jokatu du 22:00etan. Bihar, Tolosak Beotibarren jokatu du Arrasateren aurka 10:30ean, eta Amezetak Zestoan jokatu du 18:00etan. Albiztur eta Villabonaren artekoa etzi izango da 11:30ean Albizturren.

Udaberri Txapelketako lau t'erdiko partidak

IKAZTEGIETA » Udaberri Txapelketako lau t'erdiko partidak jokatuko dituzte bihar, 10:30ean, Ikaztegieta frontoian. Kadeteetan Ori (Zaldibia) eta Agirresarobe (Eibar) ariko dira. Nagusietan hiru partida izango dira: Alonso (Ikaztegieta) eta Arzelus (Lazkao); Ibaguren (Ikaztegieta) eta Barandiaran (Tolosa); eta Errazkin (Altzo) eta Ariznabarreta (Zegama).

Maila handiko jubenil eta afizionatuen partidak

IRURA » Kirol Astearen baitan maila handiko jubenil eta afizionatuen arteko pilota partidak jokatuko dituzte gaur, 22:00etan. Lehenengo partidari jubenilen artekoan, Ibai Jauregi (Euskadiko txapeldunordea 2009an) eta Ibai Arratibelek (Euskadiko txapelduna 2010ean), Oier Apezetxea (Euskadiko txapeldunordea 2009an) eta Txomin Zinkunegiren (Euskadiko txapelduna 2010ean) aurka jokatu dute. Bigarren partidari, Xabier Andreu (Antiguako txapelduna 2009an) eta Eneko Galarragak (Gipuzkoako Elite mailako txapelduna 2010ean), Ander Muguruza (Herriarteko Euskadiko txapelduna 2009an) eta Gaizka Lopezen (Euskadiko txapeldunordea 2010ean) aurka jokatu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Berto eta kantuak afalostean

GAZTELU • Joan den asteburuan, Gazteluko Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkarteak *Piano bat bertotan* emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Jagoba Astiazaran, Ainhoa Ansa eta Beñat Gaztelumendik hartu zuten parte kontzertu berezi honetan. Kantu zaharrak eta berriak abestu zituzten denek elkarrekin. Honen aurretik, afaria izan zen elkartearen bertan. 50 lagun inguru bildu ziren jaialdian. Gazteluko kultura batzordeak antolatua zuen ekimena eta hauek, eskerrak eman nahi izan dizkiete elkarte bakoidei, «lan polita» egin baitzuten eta giro bikaina sortzen lagundu. HITZA



Liburuaren egunaren aurrekoak

IBARRA • Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaurkoa, eta honen harira hainbat ekitaldi antolatuta dituzte eskualdean, nahiz kanpoan. Ibarra, hala ere, aurrea hartu diote egunari eta atzo arratsaldean bertan, Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, Idoia Sanchezen bisita jaso zuten haurrek Li-burutegian. Bertan, ipuinak kontatzen aritu zen tolosarra. Gaur Uzturpe Ikastolak ekitaldi gehiago egingo dituzte. Alde batetik, 09:15etik 10:30era ikasleek elkarren artean ipuin kontaketa egingo dute. 11:00etatik 12:00etara berriz, Garbiñe Ubeda idazle tolosararen bisita izango dute eta gelan landu duten *Mila* ezker liburua aurkeztuko dute. EZEZA

Ramon Otegi garaile izan da Trintxerpeko mendi lasterketan

Gaztelu • Marka berria jarri zuen bertan; orain, Estatuko maratoi txapelketan parte hartzeko asmoa du.

ERREDAKZIOA

Hilaren lein Trintxerpen mendi lasterketa jokatu zen eta bertan Ramon Otegi gazteluarra izan zen garaile. 160 lagun inguruk hartu zuten parte bertan, baina onena eskualdekoa izan zen. Gainera marka berri bat jarri zuen, 50 minutu eta 30 segundoko denbora eginaz.

Ramon Otegi gustura agertu zen lasterketaren amaiera, berak egin-dako lanarekin. Azken aldian erpe-deko lasterketetan korritu du Otegi, baina bere hurrengo erronka, Estatuko maratoi txapelketan parte hartzea da. Bere asmoa da Asier Cuevas, Ibon Espartza eta Iker Mayor taldekideei, proba ezberdinetan laguntza ematea.

tolosaldeko hitza . iragarkilaburrak.com

Abuztuaren 15etik 15.000ak arte josteko iragarriak soilik argitaratuko dira.
BUCARPAK JURTZEKO: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-6556 / Telefono erabiltza

OSTIALARITZA

ETXEBITZTAN

SALDAI

Tolosa. (Voth-Garotid) Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m²). Promotorearen bidu zueneko salmenta. Sukalde eta 2 koxun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsuak. Komunikazio onak, beste gutxiak kargatu begira. 2 terraza eder eta baita tasteroa ere. Prezioa salmenta. 658-72 92 88.

Tolosa. Tolosa Aite Zaharran atiko argitsuak. 50m². Egonezina. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 peseta). Harri-mareta eta 943-45 00 20 telefono zenbakia. Zuzeneko salmenta.

LAN ESKANTZAN

LAN ESKANTZAN

LAN ESKANTZAN

OSTIALARITZA

Goierri (Gipuzkoa). Zerbitzari eskualduna behar da Goierriko jabetze baten...

GANERAKIDEA

Diartzen. Itzulia ikasketen zerbitzuaren enpresa itzultzaile baten bila dabil. Kontuan hartuko da itzulpengintza ikasketak egindakoak eta itzulpenerlanen esperientzia zuzena. Trades zene Transit programak erabiltzen jakitea eta ingelesez eta frantsesez jakitea ere baloratuko da. Interes izanez gero, bidali curriculumarekin helbide honetara: info@itzulia.com.

Higiezinak

SARARI/TRAISTEDIOAK

SALDAI

Donostia. Donostian/Argitua-Erotaburu/Argitua Itxia salgai. Kofera sartzeko eta trastero moduan erabili daiteke. Prezioa: 24.000 euro. Harri-mareta eta telefono zenbakia: 608-0196 93.

SEAT

auto/ ARTIBAI s.l.

SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN

BMW 320 CI FULL EQUIP
11.000 euro

SEAT LEON 2000 TDI 140 zald
2007ko modeloa. Cicia / 12.900 euro

SEAT LEON TDI 160 ZALDI BERRIA
16.300 euro / Finantziakoa 760 interes.

SEAT LEON 2000 TDI 148 zald
2007ko modeloa. Zilar kolorekoa / 12.500 euro

NISSAN XANITERI GARBIKO AUTOA
1.500 euro

Irakurri gurea atz. • Markina-Sarriena
Tel.: 94 616 77 14 / Fax: 94 616 77 69

Ikolan alaldi
ALDIBATEKO LANA

Begonez, 7 jantzi konpartimatu - BEASAIN

943-16 20 48

Buzi lan eskaintzak

www.ikolanaldi.com

Etxebila
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

SALDAI

AMARA 2 logela, egongela, sukaldia, sukaldea, berdegela, terraza. 48.500.000 peseta

AMARA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, terraza. 48.500.000 peseta

AMARA 1 logela, egongela, sukaldia, berdegela, terraza. 48.500.000 peseta

ANTZIBO 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, loggia. 11.800.000 peseta

TAMON 11.800.000 peseta

ERIALDEA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 20.000.000 peseta

ALDE ZARRAMA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela. 42.800.000 peseta

GRON Logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko Kabea. 38.000.000 peseta

MITZURRODIO 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, terraza. 38.000.000 peseta

MARITENE Logela, egongela, sukaldia, berdegela, Kanpoko loggia. 22.000.000 peseta

BERBETEA 2ter. 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Kanpoko loggia. 25.000.000 peseta

ELUENABITA Apartamentu pertsa. Kanpoko. Trasteroa. 21.000.000 peseta

ALIZA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko loggia. 25.000.000 peseta

ALIZA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Kanpoko loggia. 25.000.000 peseta

MARITENE 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Kanpoko loggia. 22.000.000 peseta

MARITENE 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko loggia. 22.000.000 peseta

ASTIGARRAGA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 25.000.000 peseta

ERRENTERIA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko loggia. 22.000.000 peseta

PALAI DONIBANE 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko loggia. 25.000.000 peseta

ALDUKARIAN

PARAI ANTRIO 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 25.000.000 peseta

AMARA Mendi atari. 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 25.000.000 peseta

OROS Rayon 10' x 6'. 2 logela, egongela, 2 terdegela, 1.200€

ERRENDO GARRA 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, Berriko loggia. 22.000.000 peseta

GRON egongela, 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 25.000.000 peseta

MITZURRODIO 2 logela, egongela, sukaldia, berdegela, 2ter. 25.000.000 peseta

www.etxebila.net

Fax: 94 616 77 69 • DONOSTIA

ARAMBURU Daxen administratzailea Higiezinaren kudeaketa

943-65 17 13 / 677-46 09 16

ALONATZEKO

- Etxeak Amestozen, San Francisco eta Iruen, Tolosan.
- Ganerak San Francisco, Arako mendi, Iruen eta Bazarre Zaldikian, onakiko aukerak.

SALDAI

- Etxebizitza. Larremendi, igogailuzkin, erakuntza berria. San Francisco eta Arako onak.
- Etxebizitza. Eruberteko Iruen. 20 milioi pta.
- Etxebizitza. Iruen. Sarteko moduan. Ekarantz onak.
- Ganerak Iruen eta Iruen Amestozen Tolosan, Bazar eta Iruen.
- Salgai. Garritu jantzi. Tolosa.

A M E Z K E T A

Leku hau zure iragarkiare zain dago

Eraikuntza berria, bilakatuera larrai handiarekin

288.485 €

inmoetesagasti

SARAYUE IKUSIZKOAK ALKARRUE ASITZURRIAN

Higiezin, 15 - 20150 Villavieja
Tel. 943 67 28 36 / Fax: 943 67 28 37
www.inmoetesagasti.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinaren zerbitzuak

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef. 943-01 07 00 • Fax: 465-71 85 96
www.inmoetesalbide.com

Aizarnabal. 1 logelako etxebizitza, 10 metro koadroko trasteroarekin. Oso prezio onen. 33.000.000 peseta

Zarautz. Aden Parra. Logela bakoiko etxe handia. Aldea eta bieta ederra. Trasteroak eta igogailuak. 47.500.000 peseta

Zarautz. Erdigunean. 3 logelako etxebizitza. Luagorren solairu igogailu gabe. 10 metro koadroko terraza polikarbin. Oso prezio onen. 43.000.000 peseta

Zarautz. Vista Alegren. 2 logela eta Terraza handia. Igogailuz. 47.500.000 peseta

Zarautz. Erdigunean. 2 logelako etxebizitza. Igogailu eta trasteroak suki batekin. Oso onen. 41.000.000 peseta

Zestoa. Arrea behe. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 peseta

Getaria. Hierrenvita kalea. 3 logela eta 2 berdegela etxebizitza. Trasteroarekin. Egonez onen. 41.500.000 peseta



14°
7°

GOIZA OSKARBI
ARRATSALAINOTUTA
BEROENA 20°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Bukatzeaz da XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Hilaren 28a da argazkiak bidaltzeko azken eguna eta maiatzaren 2an argitaratuko ditugu zortzi argazki finalistak.



Natura ikusi eta bizitu

TOLOSA

Arkaitz Lazkanok Asturiasko Pontes inguruan ateratako argazki hau bidali du: «Argazki hau Potes eta Arenas de Cabrales artean dago aterata. Autotik haize pixka bat hartzera ateratu ginen eta erreka eder hau ikusteko aukera izan genuen». ARKAITZ LAZKANOK

ALEGIA

Alazne Casisek Urederran ateratako argazkia aukeratu du: «Momentu motz batez eguzkiak atzetik eman zigun gure itzala ibaiko ur berdeketan marratuz. Momentu hori argazki hone-tan jasotakoa da eta laster desagertu zen». ALAZNE CASIS



A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Teatro Estudio taldeak *The con Harold Pinter y Dario Fo* obra antzetzuko du Topic-en 20:00etan.

Kirol Astea

■ **Irura.** 22:00etan esku-pilota partidak pilotalekuan Gipuzkoako afizionatu mailako pilotari entzutsuenen artean, Kirol Astearen baitan.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Palestinareen aldeko Gipuzkoako plataformak hitzaldia emango du 18:00etan Kultur Etxean.

Musika

■ **Tolosa.** Juan Luis Anasagasti tenorea eta Jaime Butron piano-jolearen kontzertua Haitiren alde Santa Klara komentuan 20:30ean.
■ **Tolosa.** Ken Zapki taldearen kontzertua Leidorren 20:30ean.
■ **Tolosa.** Atom Rhumba eta Gora Japon taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Deialdia

■ **Tolosa.** Maiatzaren 15ean egingo den III. Txapin Festa antolatzeko bilera deitu dute 19:00etan Kultur Etxean.

Zinema

■ **Zizurkil.** Euskarazko VII. Film Laburren Zirkuitua (Laburbira) Atxulondo kultur etxean 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSA

Nere Karrerak Palman ateratako argazki hau bidali du XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. NERE KARRERA



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 09:30-20:30 / Lanunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Arabako Etorbidea 5/belches • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>